

azken portuko tabernan • gorka erostarbe

Xabier Erkizia

NORTASUN AGIRIA

1975eko urriaren 27an jaio nintzen, Lesakan. Egun Beran bizi naiz. Oinarrizko ikasketak Lesakan bertan eta Lekarozen egin eta gero, Irrati eta Telebistako ikasketak Bilbon bete nituen. Betidanik, musikarekiko zaletasun berezia izan dut, baliteke amak eta bizilagunek emana izana. Nagusiki 90eko hamarkadatik aitzinera, musika munduan gehiago murgildu naiz, eta horretan nabil, ahal den neurrian esperimentatzen. Orain etengabe ari naiz proiektu berriak sortzen. Uste dut nire bizio sekretua hori dela, etengabe jende desberdinarekin kolaboratzea.

Lau urte eman zituen T'tipi-ttapa telebistako zuzendari gisa, sorreraz geroztik, baina joan den urteko urtarilaz geroztik ez dabil bertan lanean. Bideogintzan eta kontzertuen saltsa horretan aritzen da, beti bide urratzaile, esperimentazioa lagun duela. Horren adierazle dira Gutariko Bat, Voodoo Muzak, Kobak eta beste hainbat musika talde nahiz egitasmotan egindako lanak. Artea du esperimentazio eremu nagusi eta Donostiako Artelekun hartu gaitu.

■ **Lehen galdera, zuri buruzkoa beharrean, Bera herriaren ingurukoa da. Bada musika giro eta kultura berezia herri horretan.**

Ertz Arte gune esperimentalak ere bertan egiten da. Mikroklima berezia al da Berako hori?

Bai, berezitasun hori nabaria da, berezkoa ia. Gero, eguneroko jarreretan uste-kabe batzuk izaten dira, pentsa baino normalagoa delako. Nahiko zaila da esplikatzeko berezitasun horren arrazoiak. Pentsatzen dut musikariaren truke horren ondorioz dela. Gu musika egiten hasi aurretik bazegoen musikarekiko halako jakin-mina, eta hain herri txikia izatean, belauldi batetik bestera igaro da. Halere, mikroklimarekin ere zerikusirik izan dezake, Bera Nafarroako herri baxuenetako bat baita, eta ezohiko hezetasun bat ere badu.

■ **Zu zeu hainbat arte adierazpide jorraturikoa zara: musika, komikigintza, ilustrazioa, bideogintza. Zer eskaini dizu bakoitzak?**

Nahiz eta alor batean edo bestean hainbat formaturekin lan egin, nire lana



«Musika mota guztietarik egitea gustatuko litzaidake»

orokortasun baten baitan ikusten dut, beharbada ilustrazioan salbu, lan gehienak enkarguz egin ditudalako. Gainerakoan, beti bide jakin bati jarraitu diot. Bideoa eta musika praktikoki, niretzat, gauza bera dira. Bai batarekin eta bai bestearekin ia lan bera egiten dut eta, gainera, saiatzeko naiz bi horien arteko lotura egiten.

■ **Jardun horietan guztietan esperimentazioa izan duzu ardatz. Bizi-molde bat da zuretzat esperimentazioa?**

Baietz uste dut. Esperimentazioa erabat erradikal hartzen ez badugu, gauza guztiekin xehe egiteko jarrera hartu beharrean, esperimentazioa bide eta esperimentazio berriak bilatzeko modu gisara hartzen badugu, bada bizitzeko modu bat. Musika norberaren bizitzaren zati bihurtzen den heinean, gainera, eguneroko bizitzan ere ondorioak edo arrastoak

uzten ditu. Niri denetik probatzea gustatzen zait. Niri neuri, musika mota guztietarik egitea gustatuko litzaidake. Oraindik geratzen zait zer egin.

■ **Eta bizitzako gainontzeko jardueretan esperimentazioarako joera baduzu?**

Bueno, beharbada badago oreka gisako bat ere, ezta? Batean aunitz esperimentatzen dudana bezala, agian bestean halako oreka txiki bat bilatzen dut. Egia erran, eguneroko bizitza une honetan hain agudo pasatzen zait, ez dut denborarik ere hala den ala ez konturatzeko. Bizimodu normala daramat, baina filosofia moduan, bai, nabaritzen da esperimentazioarako joera. Horrekin ez dut esan nahi gosaltzeko katilu bat erabili beharrean perrail bat erabiltzen dudarik [kar, kar, kar...].

■ **Halere, gustu konbentzionalagoak izandakoa bazara. Zer datorkizu gogora, esate batera-**

bat-batean

- **Musikari bat?** Jim O'Rourke, mugarik ez duelako eta beti ustekabekoa delako egiten duena.
- **Soinu bat?** Kilker kantuaarena, euriarena.
- **Zinemagile bat?** David Lynch.
- **Edari bat?** Kafea.
- **Jaki bat?** Onddo beltzak.
- **Hiri/herri bat?** Azkoitia.
- **Ilusio bat?** Egiten dudanarekin ez aspertzea.
- **Damu bat?** Gutariko Batekin bidean gelditu izana.

ko, gaur egun Su Ta Gar, Metallica eta gisako taldeak entzutean?

Beste garai bateko zaletasunak dira horiek, baina ez dut bestelako sentimendu arrarorik sumatzen. Bakarrik, orain ez dudala entzuten musika hori, besterik ez. Musika hori entzuna naiz eta beste mila gauza ere bai. Gaur egun batez ere musika esperimentalak entzutea gustatzen bazait ere, edozein musika mota entzuteko gai naiz eta, gainera, gustatzen zait. Adibidez, musika folklorikoa edo trikitixa. Justu hori da nire lanaren oinarrietako bat. Gustatzen zait estandar horiekin jolastea.


■ **Orain, gai al zara garai batean bezala NBAko jokalariei gehientsuenen izenak jakiteko?**

Ez, ez, inondik ere ez. Garai batean saskibaloirako zaletasun handia nuen. Baina, gaur egun, noizbehinka telebistan partidaren bat egokitu eta apenas ezagutzen ditudan hiruzpalau, ezagunenak noski. Zaletasun hori bidean geratu zen.

■ **Bertsotan ere aritu zinen ikastola garaian. Bertsolaritzak esperimentazioarako beharrik ba al du eta jokoa ematen al du?**

Baietz uste dut. Eta, gainera, inprobisazioaren ikuspuntu horretatik begiratuta, badu esperimentazioaren zati handi bat. Azkenaldian behin baino gehiagotan egon izan naiz herriko bertsotaleekin (Jon Abril eta beste) hitz egiten eta interesatzen zait bertsolaritzak azken urteetan hartu dituen bide berriak. Baina betiere hitzaren baitan ibiltzen da eta hori da pena pixka bat ematen didana. Musika inprobisazioarekin ez dela esperimentatzen, alegia. Bi inprobisazio mundu izan daitezke, baina ez dago bien arteko lotura zuzenik. Nire ustez, hori izan liteke bertsolaritzak egin beharko lukeen proba bat.

zirika



Aritz Gorrotxategi

Etxebizitza bat erostekotan nabilen. Alokairuan hartzea ere ez zitzaidan ideia txarra iruditzen. Hori dela eta, egunkarian zeuden iragarriak bolaluz markatu nituen. Etxebizitza batzuk ikustera hurbildu nintzen jarraian. Ilara luzea zegoen auzoaren sarreran. Gabardina gris bat zeukan tipo batek ixten zien bidea denei. Puru bat zuen ezpainetan. Harategian bezala, zenbakiak banatzen ari zen jendearen artean. Txanda egokitu zaidanean, eskua luzatu dit. Euro bat balio omen zuen eraikina kanpotik ikusteak. Udaletxearentzat egiten zuen lan morroskoak. Etxebizitza hutsak gida turistikoak beteak zeudela esan du amorruz nire ondoan zegoen gazte batek.

Bisbal eta okupak

Beste auzo batera abiatu naiz. Han ere tipo gris bat zegoen. Poliziak, doan begiratzen saiatu den emakume bat atxilotu du. Okupa talde batek aulkia bota ditu leihotik behera. David Bisbalen abestiak jaurtikitzen zituen tanke bat ekarri dute ordena mantentzeko. Gurasoen etxera hurbiltzean, morrosko berri batek galarazi dit sarrera. Bertan bizi nintzela esan diodanean, % 50eko deskontua egingo zidala adierazi dit. "Araudi berria, badakizu", argitu du sorbaldak goratuz. Alogera ordaindu ez duten batzuk atera ditu poli-

ziak kalera. Pixkanaka, etxebizitza propiorik ez duten gazteak bete dira kaleak. Ez ditut zehazki zenbatu, baina 100.001 eta 100.003 gazte birtartean izango ziren gutxi gorabehera. Zurrumurruek arabera, hiri berri bat sortu omen da ekialdeko orube batean. Autobus zaharretan eta kanpin-dendetan bizi da jendea. Merkea dela esan dit mutil gazte batek. "Ordaindu behar den bakarra, pentsamenduren zerga da", erantsi du segidan. Epi eta Blas bertan bizi dira. Futbol-talde bat sortu dute BMWeko langabeek. Hil daitezela ederrak izena dauka taldeak. Trapuz loturiko eskafandra herdoilduen pusketekin jolasten dira. Inork ez du atezaina izan nahi.